

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEEN SAILA

2018-2019ko EPEko epaimahaietako kideak aldatzea

Giza Baliabideen zinegotziak 2021eko otsailaren 5ean emandako ebazpena tarteko, 2018-2019ko enplegu publikoparen eskaintza, EPE, deialdiko epaimahaietako kideak izendatzea eta ALHAOn argitaratzeko agintzea erabaki zen, besteak beste.

Izendatutako kideren baten arrazoi pertsonalak direla eta, aldatu egin behar da epaimahaietako kide batzuen izendapena, eta berriak izendatu; hauxe hain zuzen ere:

- Gonzalo Sáenz Azcoaga hainbat epaimahaitako lehendakari titular izendatzea: O (lanbideak) I (ikuskaritza) T (teknikariak) eta M (musika).

2021eko urriaren 21etik aurrerako ondorioekin.

Beraz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak –abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua– 127. artikuluan aitortutako eskumenak direla medio, eta alkateak 2016ko maiatzaren 24an Funtzio Publikoaren Arloko zinegotziaren gain utzitako aginpidea baliaturik, hauxe ebatzi dut:

1. Goian adierazitako pertsona izendatzea, deialdi honetako epaimahaietako kide izateko.
2. Ebazpen hau Udalaren iragarki taulan, webgunean eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.
3. Ebazpen honen kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsua, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsua ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 14an

Gasteizko Udaleko Giza Baliabideen zinegotzia
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE